Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# III. ERANSKINA

# ENPLEGU-ESKAINTZAK BILTZEKO, ERREGISTRATZEKO ETA/EDO TRANTSIZIO-PROZESUAREN KUDEAKETA ETA JARRAIPENA EGITEKO DIRULAGUNTZA-ESKABIDEA LEHEN AUKERA PROGRAMA

*Administrazioak betetzeko*

| Prozeduraren kodea | 1 | 0 | 1 | 5 | 9 | 1 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|

## 1. ERAKUNDE ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

| IZENA EDO SOZIETATE-IZENA | | | IFZ |
|---|---|---|---|
| | | | |
| HELBIDEA | | | HERRIA |
| | | | |
| POSTA-KODEA | LURRALDE HISTORIKOA | JARDUERA NAGUSIA | EJZ |
| | | | |

## 2. ORDEZKARIAREN DATUAK

| IZEN-ABIZENAK | NAN/AIZ |
|---|---|
| | |
| Inskribatuta al dago EAEko Administrazio Publikoaren ordezkarien erregistro elektronikoan? | |
| Bai ☐ | Ez ☐ (*kasu honetan, ordezkaritza egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu behar dira*) |

## 3. HARREMANETARAKO PERTSONAREN DATUAK

| IZEN-ABIZENAK | NAN/AIZ |
|---|---|
| | |
| TELEFONOA | POSTA ELEKTRONIKOA |
| | |

## 4. JAKINARAZPENETARAKO DATUAK

| KOMUNIKAZIORAKO HIZKUNTZA | | | |
|---|---|---|---|
| Euskara ☐ | | Gaztelania ☐ | |
| JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOAK EGITEKO BIDEA | | | |
| Telefono mugikorra | | Posta elektronikoa | |

## 5. ESKATUTAKO ZENBATEKOA, HONI ERANTSITAKO ZERRENDAREN ARABERA

| | ESKAINTZEN KOPURUA | EGINDAKO KONTRATUEN KOPURUA | DIRULAGUNTZA EGINDAKO KONTRATU BAKOITZEKO | % 10 GEHIAGO 20 KONTRATUKO MULTZO BAKOITZEKO | EUROAK, GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| BILDUTAKO ETA ERREGISTRATUTAKO ESKAINTZAK | | | 120,00 euro | | |
| KUDEATUTAKO ESKAINTZAK | | | 80,00 euro | | |
| TRANTSIZIO-PROZESUA KUDEATZEA ETA JARRAIPENA EGITEA | | | 120,00 euro | | |
| DIRULAGUNTZAK, GUZTIRA | | | | | |

## 6. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

☒ Markatu x batekin dagokiona

**Lehena:**

☐ Zigor-zehapena edo administrazio-zehapena ezarrita edukitzea, dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera kentzen diona, honako hauek barne

- Sexu-bazterkeriagatik ezarritako zehapena, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzei buruzkoak) edo martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerakoak) ezarritakoaren arabera
- Abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak (Lan-arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak) 46.1.b) eta 46.bis.1.b) artikuluetan xedatutako zehapen osagarri batek hala ezarri izana, ebazpen irmo bidez.

☐ Legez ezarritako kausaren bat izatea, laguntzak edo dirulaguntzak jasotzea eragozten diona, otsailaren 18ko 4/2005 Legean (emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzei buruzkoan) aurreikusitakoak barne:

- Ez edukitzea berdintasun-planik indarrean, nahiz eta enpresa Estatuaren araudiaren arabera horretara behartuta egon
- 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan, ez edukitzea ezarrita sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitu eta eragozteko neurririk, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuak ezarrita dituen legeen arabera.

**Bigarrena:**

☐ Erakunde eskatzaileak ez dauka ordaindu gabeko itzulketa-betebeharrik dirulaguntzen arloan.

**Hirugarrena:**

☐ Eskatzailea ez dago Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluaren 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

**Laugarrena:**

☐ Eskatzaileak ez du itzulketa- edo zehapen-prozedurarik abian, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko dirulaguntza edo laguntza baten ondorioz.

☐ Eskatzailea …………………………………………………………………………………………………….. dirulaguntza edo laguntza itzultzeko prozeduran edo zehapen-prozeduran sartuta dago (dirulaguntza- edo laguntza-emailea: ………………………………………………………………………………….………….)

**Bosgarren:**

☐ Erakunde eskatzailea ez da helburu berbererako inolako laguntzarik jasotzen ari beste administrazio publiko batzuetatik.

☐ Erakunde eskatzaileak ...................................... euroko laguntza jaso du (emailea: ……………………………………………………………………………………………………..) (*).

☐ Laguntza eskatu dio ..........................................(a)ri (*), eta ebazpenaren zain dago.

(*) Adierazi Administrazioaren edo erakunde publiko edo pribatuaren izena

**Seigarrena:**

☐ Egiazkoak dira eskabide honetan adierazitako datuak.

## 7. DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA

| | |
|---|---|
| **Tratamendu-jarduera** | Enplegurako eta enplegu-prestakuntzarako dirulaguntzak. |
| **Arduraduna** | Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua. |
| **Xedea** | Lanbideren eskumen diren enplegu-politika aktiboekin eta prestakuntzarekin lotutako dirulaguntzak kudeatzea eta kontrolatzea. |
| **Legitimazioa** | Tratamenduaren arduradunari emandako ahalmen publikoak baliatzea. |
| **Datu-lagapenen hartzaileak** | Arloan eskumena duten administrazio publikoak. |
| **Eskubideak** | Zeure datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezerezteko eskubidea duzu, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo haien aurka egiteko ere, informazio gehigarrian azaltzen diren baldintzetan. |
| **Informazio gehigarria** | Gure webgune honetan kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: (https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/074300-capa2-eu.shtml) |

Xedapen hauek betetzeko:

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf)
- Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf)

## 8. ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

**Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:**

- Erregistratutako, kudeatutako eta/edo bildutako enplegu-eskaintzen zerrenda, eta haietako bakoitzean kontratatutako pertsonen zerrenda.
- Pertsona kontratatuen eta enpresa kontratatzaileen zerrenda, trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egin ondoren.
- Eskatzailea pertsona fisikoa bada, organo eskudunaren ziurtagiria, ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafea adierazten duena.

## 9. INFORMAZIO GEHIGARRIA

**1.– Dokumenturik ez aurkezteko eskubidea.**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta zu berariaz aurka agertzen ez bazara, jakinarazten dizugu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, bere eskumenak baliatuz diharduela, honako dokumentu hauek eskatuko dituela bitarteko elektronikoz. Berariaz adierazten baduzu ez duzula nahi Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak dokumentu horietakoren bat eskuratzerik, ondoren adierazitako laukitxoan adierazi beharko duzu, eta, beraz, eskabide honekin batera aurkeztu beharko dituzu dokumentuak:

| | Baimena eman ezean |
|---|---|
| • Zerga-betebeharrak egunean dituzula egiaztatzen duen ziurtagiria | ☐ |
| • Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituzula egiaztatzen duen ziurtagiria | ☐ |

- Eskatzailea pertsona fisikoa bada, organo eskudunaren ziurtagiria, ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafea adierazten duena. ☐

**2.– Datu pertsonalak egiaztatzea.**

Bat etorriz Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin, jakinarazten dizugu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, bere eskumenak baliatuz diharduela, beharrezko diren egiaztapenak egingo dituela eskabide honetan adierazitako eta administrazio publikoen esku dauden datu pertsonalak egiazkoak direla egiaztatzeko.

**3.– Alta emanda egotea Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan.**

Lanbidek laguntzak ordaindu ahal izan ditzan, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan agertu beharko du pertsona edo erakunde onuradunak.

Erregistratuta ez badago, edo Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroko banku-datuak aldatu nahi baditu, inprimaki bat bete beharko du, hemen adierazitako ereduari jarraituz: https://www.euskadi.eus/hirugarrenak.

| Eskabidearen sinadura elektronikoa: |
| --- |
| |